



Kronika.net

Argazkiak

Elkarrikketak

Jasota Bezala

Inkesta eta Ertabaida

Zerbitzu eta Helbideak

Agenda

Kronika Bereziak

Dokumentuak

Publizitatea

Egin Baskide

KRONIKA.NET

ASTIGARRAGA - IRAILEKO KULTUR EKINTZAK

Mugikortasun Astea eta Sagar Uzta jaia hilabete honetan

Argazkigintza erakusketa, 'Bidaian' ipuin saio antzeztua eta ikastaro mordoa izango dira aukeran, baita ere.

2010/09/07 - Asteartea

Ikasturte hasiera iritsi da Astigarragara ere eta ekintza eta ikastaro aukerarik ez da faltako iraillean. Esaterako, Mugikortasun Astea izango da hilaren azken aurreko astean eta bertan, Oinbusa, Automobilak eraginkortasunez gidatzeko ikastaroa, Bizikleta konpontze eta mantentze ikastaro praktikoa eta Hitzaldi-proiektzioa Mugikortasuna animalien erreinuan izenekoa izango dira.

Azken igandean, berriz, X. Sagar Uzta jaia antolatu dute, sagarraren festa eta tola-reetako lanen hasiera ospatzeko. Foru plazan bertako sagar mota ezberdinak egongo dira ikusgai eta erosgai. Sagardoa egiteko prozesu guztia zuzenean ikusi eta 2010eko uztako lehenengo muztioa probatzeko aukera ere izango da. Horrez gain, honako ekintzak ere izango dira: sagar-dantza, tripartariak, artisautzako produktuen salmenta, herri bazkaria...

BILATZAILEA

(datu bilaketa hitzak)

BILATU

ARGAZKIAK



IKUSI

Momentu honetan
Inkestak ez dago

Ertabaida Lekua